



GIZARTEKINTZA DEPARTAMENTUA

## JARDUERA NAGUSIAK

Baliabideen plangintza  
Kalitatearen erronka  
Erakundeen arteko lankidetzak  
Laguntzak

Gizartean sortzen diren beharretara modu azkarrean, malguan eta eraginkorrean egokitzea eta gizartea bera aldatzen doan erritmoan egitea izan dira Gizartekintzako jarduera gehien xede nagusia. Jarduera hori ez da gizarte baliabideak kudeatzera bakarrik mugatzen, baliabide horiek epe motzari eta ertainari begira planifikatzeko eta horien kalitatea hobetzeko ahalegin handia egiten ari baita Gizartekintza.

Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen eskumena duten Administrazioen erantzukizunak argitzeak eragin handia izan du lan horretan, horri esker Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gizartekintzaren bidez, bere ardurapean zein jarduera dituen zehaztu eta argitu baitu, gizarte zerbitzuetan zehaztutako helburuek geroz eta osagai kualitatibo handiagoa lortuz.

Beraz, esan daiteke, baliabideen plangintza, horien kalitatea eta administrazioen arteko koordinazioa, bereziki gizarte eta osasun alorrean, izan direla departamentu honetako jardueraren 3 estrategia-ildo garrantzitsuenak 2002 urtean zehar.

## BALIABIDEEN PLANGINTZA

Etorkizuneko baliabideen plangintza eta egungoen antolaketa ondorengo plan hauen garapenean islatu dira:

\_ *Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako mapa*. Lurralde historikoko gizarte zerbitzuek epe ertainera izango duten diseinua azaltzen du eta prestazio, programa eta zerbitzu guztiguztien berri jasotzen du, horien erakunde eskuduna edozein dela ere.

\_ *Gipuzkoako Gerontologia Plana*. Adineko pertsonak atenditzeko babes sistema publikoei buruzko jarduera arauak zehaztera bideratua dago.

\_ *Babesik gabeko haur eta gazteak zaintzeko plan orokorra (2002)*. Adopzioa eskatzen dutenentzako zerbitzua hobe-

tzeko, egungo zerbitzuetako laguntza teknikoa sendotzeko eta familiei zuzendutako arreta programak zabaltzeko eta dibertsifikatzeko, oinarritzako gizarte zerbitzuekiko eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekiko lankidetzan oinarritzen diren ildo estrategikoak ditu.

\_ *Gizarteratze Plana* bi bloke handitan antolatuta dago. Lehenak, diru-sarreren bermearrekin eta lan munduan sartzeko arazo larriak dituzten kolektiboen gizarteratze eta laneratzearekin zerikusia duen guztia biltzen du. Bigarrena berriz, sektorialki antolatuta dago eta ondoko hauek jasotzen ditu:

a) Kolektibo bakoitzari eskainitako zerbitzuen antolaketa, erregulazioa, finantzazioa eta ebaluazioa bezalako estrategia ildo berrien garapena

b) Baliabide berriak sortzea.

\_ *Hurbiltzen Programa*, lan ingurunekeo Gipuzkoako udalerrietan gizarte zerbitzuak behin betiko indartzea eta finkatzeari buruzkoa.

\_ *Pertsona Ezinduei Laguntzeko Plan Orokorra (2002)*, pertsonen normalizazioan eta zerbitzuaren beharrenean oinarritua.

\_ Halaber, *Gizarte eta Heziketako Plana* prestatzeari ekin zaio.

## KALITATEA

Kalitatea da bigarren ildo estrategikoa eta horrekin ulertzen duguna zera da: erabiltzaileen, langileen eta orokorrean gizarte osoaren beharrak eta eskakizunak betetzeko bide multzo bat. Horri dagokionez, aipagarria da Gizartekintzari Kalitatea Kudeatzeko ISO 9001:2000 aitortpena eman zaiola *Gipuzkoako Lurralde Historikokoan, erakunde, zerbitzu eta gizarte zerbitzuen zentroak (adineko pertsonen, ezinduei eta arriskuan dauden adingabeei zuzenduak) baimentzeari, homologatzeari eta ikuskatzeari* dagokion jardueran.

Aipatutako aitortpenaz gain, Departamentuak, zuzenean kudeatzen dituen gerontologia zentroak, *barne-kalitatea bermatzen duen sistema* ereduak, Eibarren eta Tolosan ezartzea sustatu du; Gizartekintza Saria sortu du, kalitate

gaietan adituak diren pertsonen osatutako batzorde zientifiko baten proposamenez, Izan-Proyecto Hombre Fundazioari kalitate osorantz aurrera egiteko kudeaketa praktikak garatzea aitortu zaiolarik; eta azkenik, Gipuzkoako adineko pertsonentzako egoitza eta gerontologia zentro gehienetan kalitate planak abian jartzea subentzionatu du.

Hobekuntza prozedurei dagokienez, Departamentuak duela gutxi amaitu ditu Gipuzkoako egoitza eta gerontologia zentro bakoitzaren kostuari buruzko azterketa bat eta etxeko laguntzari buruzko estudio bat, eta adineko pertsonentzako eguneko zentro guztien kostua aztertzen ari da.

#### ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Hirugarren estrategia ildoak erakundeen arteko lankidetzak da, eskaintza eskaerari egokitzeko beharrea oinarritua. Gizarte eta osasun alorrean ikusi da garapen instituzional handiena, eta, hala, Departamentua bere gizarte eta osasun arloko arreta garatzeko akordio batera iritsi da Eusko Jaurlaritzarekin, gainerako Lurralde Historikoetako foru aldundiekin eta EUDELekin.

#### BESTE JARDUERAK

Ildo estrategikoez gain, 2002an Gizartekintzan zehar garatu diren beste jarduerak ondoko hauek dira:

- \_ Montrealgo Unibertsitatearekin (Kanada) lankidetzak hitzarmena, gizarte baliabideen esleipenari dagokionez, adineko pertsonen duten menpekotasuna baloratzeko metodologiak ikertzeko eta ezagutzeko.
- \_ *Ezintasuna eta Informazioaren Gizartea Jardunaldietan*, FEAPSein lankidetzan, *Ezagutzaren gizartea eta adimen ezinduak: Ingurune egokiturantz III*. Mintegia antolatzea eta bertan parte hartzea.
- \_ *Adinekoen aldeko Agiria* egitea eta zabaltzea.
- \_ Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluaren bitartez, *Zahartzaroaren Munduko Asanbladan* parte hartze zuzena.
- \_ *Haur babesari buruzko jardunaldi europarrak: etorkizuneko haur babesaren oinarriak* antolatzea eta bertan parte hartzea.
- \_ *Boluntario Plana* egiten laguntzea.

#### Plangintza eta erakunde harremanak

##### Ikuskapen, Ekipamendu eta Elkarlan Zerbitzua

Ikuskapen, Ekipamendu eta Elkarlan Zerbitzuari, Gipuzkoako lurralde historikoko erakunde, zerbitzu eta gizarte zerbitzuen zentroak (adineko pertsonen, ezinduei eta arriskuan dauden adingabeei zuzenduak) baimentzeko, homologatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna dagokio. Jarduera horrek, lehen ere aipatu den bezala, Kalitatea Kudeatzeko Sistema ISO 9001:2000 esleitzea lortu du. Ondorengo jarduerak garatu dira:

Zentro eta zerbitzuen ikuskaritzari dagokionez:

<b>Jasotako eskaerak:</b>		
Funtzionamendu aurreko baimena		13
Funtzionamendu baimena		14
<b>Zentroetara egindako bisitak:</b>		
Baimenezkoak		129
Bestelakoak		36
<b>Foru Aginduak:</b>		
Aurretiko baimenak		7
Epeak zehaztekoak		1
Funtzionamendu baimenak		9

Departamentuak bere zentroetan egindako inbertsioak hauek dira:

##### Adineko pertsonak

- \_ Eguneko zentroak eraikitzea eta hobetzea, Beasain, Orrio, Errenteria eta Eibarren banatutako 105 leku gehiago edukitzea ahalbidetuz.
- \_ Eibarko Egogain gerontologia zentroko instalazioak birmoldatzea, zentroko segurtasun sistemak hobetzeko.

##### Pertsona ezinduak

- \_ Donostiako Ondarreta kaleko 5. eta 7. zenbakiko lokaletan: laguntza teknikoak azaltzeko lokala.
- \_ Maldatxo: 12 leku dituen eguneko zentroa, drogamenpekotasunarekin zerikusia duten arazo soziofamiliarak eta psikosozialak dituzten gaixo kronikoentzako.

\_ Uba Gunea Donostian: etorkizunean gizarteratzeko egoitza gisa erabiliko den eraikina birgaitzeko lanen hasiera.

#### Haurrak eta gazteak

\_ Irungo Azpilikueta baserria eta Aginagako (Usurbil) Irisasi basetxea egokitzea babesik gabe dauden adingabeen egoitza arretarako.

#### Gizarte zerbitzu gaietan inbertitzeko laguntzak:

2002	4.692.499 euro
2003	1.807.454 euro

#### Deialdiaren datuak:

Erakunde eskatzaileak	130
Aurkeztutako proiektuak	262

Laguntza horiek aurreko urteetakoetara gehitzen dira eta, guztira, sektore desberdinetako 2.803 lekutan esku-hartzea eragin dute.

*GIZALDE Giza Ekimenaren Laguntza Plana*, 2002ko otsailaren 5eko 3/2002 Foru Dekretuak onartua eta 992.290 euroko aurrekontu batekin hornitua. Planak, babesik gabeko haur eta gazteen, ezinduen, adinekoen eta gizartetik baztertuak izateko arriskua daukaten beste kolektiboen arretarako eta horien gizarte arazoak konpontzeko programak garatzen laguntzen du. 100 erakunde desberdinen 296 programa subentzionatu dira.

ZENTRO MOTA	BAZTERTU SOZIALAK	ADINGABEAK	MINUSBALIATUAK	UDALAK	ADINEKO PERTSONAK	GUZTIRA OROKORREAN
Elkartekak	21.519	3.296	348.634		4.079	377.528
Eguneko zentroak	48.005		256.473		793.917	1.098.396
Pisuak	16.981	74.602	251.026			342.609
Egoitzak	227.190		162.273		2.655.392	3.044.856
Tutoretzapeko apartamentuak					268.987	268.987
Etxebizitza komunitarioak			87.626			87.626
Landa inguruneko zentro balioaniztasunak					273.328	273.328
Gizarte zerbitzuetarako bulegoak				242.033		242.033
Bestelakoak	27.460		142.879		155.481	325.820
Laguntzak guztira	341.156	77.898	1.248.912	242.033	4.151.185	6.061.184

## Emandako laguntzak

	SUBENTZIONATUTAKO PROGRAMA KOPURUA	EMANDAKO ZENBATEKOA
Adingabeak	2	11.515,18 euro
Ezinduek	151	482.956,54 euro
Adineko pertsonak	13	52.838,88 euro
Gizarteratzea	75	300.765,74 euro
Familia	55	144.213,66 euro
<b>GUZTIRA</b>	<b>296</b>	<b>992.290,00 euro</b>

Adineko pertsonentzako egoitzetan kalitate planak ezartzeko Departamentuak 210.354 euroko gastua baimendu zuen.

### Komunitate Ekintzako eta Plangintzako Zerbitzua

#### Gizarteratze atala

##### Hitzarmenak

\_ Gizarte bazterketaren alorrean lan egiten duten erakundeekin sinatuko diren hitzarmenen oinarri teknikoak idaztea. Hitzarmenek %67ko gehikuntza ekonomikoa izan dute aurreko urteen aldean.

\_ Tratu txarreko eta abusu sexuareko egoeran daudenen arretarako erakundeen arteko hitzarmena.

##### Foru dekretuak eta programak

\_ Gizartean baztertuta dauden pertsonak gizarteratze egoitzetara eta gizarte eta osasun baliabideetara iristea erregulatzeko Foru Dekretuak.

\_ *Aterpe Plana*, 2002ko uztailaren 9ko 42/2002 Foru Dekretuak onartua eta 300.506 euroko aurrekontuarekin hornitua. Gizarte izaerako arazo larriak dituzten pertsonak lan munduan sartzeko du helburua.

\_ 2002ko urriaren 1eko 55/2002 Foru Dekretua, taxi-bonoa erabiltzeko laguntzak onartzen dituena.

##### Besteak

\_ Kalitateari dagokionez, garrantzi handia eman zaie adimen gaixotasun kronikoa duten bezeroen asebetetze inkestei.

## Plangintza alorra

### Eskumenen antolaketa

\_ Eskualdeko laguntza taldeen programa berriro diseinatzea, Gipuzkoa osora hedatuz. Ekipo horiek, Errenteria, Zumaia, Tolosa eta Bergaran kokatuak, 13 teknikarik osatuak dira (soziologoak, gizarte langileak eta haurtzaroen esku-hartzeko teknikariak).

### Gizarte zerbitzuen mapa eta bere aplikazioa

\_ *Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa*, arreta sistema planifikatzeko oinarriko baliabidea da. Beharrak estaltzerakoan dauden helburu numerikoak nahiz ereduaren orientazio orokorra eta baliabideen antolaketa, eskualdeko eta eskualde azpiko mailatan, hartzen ditu sistema honek. Era berean, gizarte zerbitzuetako lau alorren plangintza jasotzen du: adineko pertsonak, haurrak, ezinduek eta baztertuek.

### Biztanleri sektorekako jarduketaren planen idazketa

\_ Gizarte baztertuen eta marjinetuen arretarako *Lurraldeko Gizarteratze Planaren* idazketa. Gizartean baztertu egoeran dauden adimen gutxituek, drogazaleek, etorkinek, gutxiengo etnikoek, etxerik gabeko eta pasadizoko pertsonak, preso edo preso ohiek eta emakumeek osatzen dute.

### Gizarte eta osasun alorra

\_ Bentaberriko adimen gaixoen zentroa irekitzea eta abian jartzea. Gune hori Donostian kokatzen da eta 60 leku ditu.

\_ Drogazaleen birgaitze psikiko eta sozialerako Mالداتخو gunera sartzeko baldintzak. Gune horrek 12 leku ditu.

### “Uliazpi Fundazioa” erakunde autonomoa

Ezintasun psikiko larria duten pertsonen arretarako sortutako fundazio hau ondorengo hauen kudeaketaz arduratu da:

\_ Zaintzen diren pertsonen bizitza kalitatea bermatzea, bakarkako plan eta programak eginez eta ikuskatuz.

\_ Zerbitzuaren kalitatea ziurtatzea eta sendotzea kudeaketa baliabide desberdinak berrikusiz: *2002-2003 Kudeaketa Plana*, prozesu giltzarriak eta barruko kontu-ikuskapenak eta abar.

\_ Bergarako Zubillaga Eguneko Zentroaren Zerbitzuari ekitea, 15 leku berrirekin, eta urrian irekitzea aurreikusten den 10 erabiltzaileentzako etxebizitza prestatzea. Zerbitzu horrekin, 213 dira egoitza lekuak eta 50 eguneko zentroko lekuak. Gainera, atsedeen gauetarako 1.500 egonaldi baino gehiago eskaini dira.

### — Prestazioen eta Balorazio Ekonomikoen atala Prestazio ekonomikoak

Kotizazio Gabeko Pentsioak (KGP), Gizarte Ongizateko Fondoko (GOF) pentsioak, Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legeko (LISMI) pentsioak, Oinarrizko Errentak eta Banakako Laguntza Ekonomikoa kudeatzen eta ordaintzen dira atal honetan.

### Hitzarmenak onartzea

2002ko HITZARMENAK	Aldundiaren gehienezko ekarpena
<b>Ezintasuna</b>	10.960.673,77
Aransgi	129.385,93
Aspace	2.651.546,60
Atzegi	1.483.812,99
Federazio Koordinatzailea	293.198,81
Gautena	1.831.713,37
Gureak Lantegiak	4.190.293,23
Agifes	380.722,84
<b>Ekintza komunitarioa</b>	2.319.817,91
Agipad	171.288,45
Acasgi	152.446,73
Ijito Ekimena Elkartea	44.684,00
Cáritas	684.545,75
Gurutze Gorria	365.997,93
Emaus Gizarte Fundazioa	250.341,26
Izan Fundazioa	439.520,13
Larratxo Fundazioa	47.005,55
Erroak-Sartu	118.888,11
Zabaltzen Sartu	45.100,00
<b>Haurrak eta gazteak</b>	5.062.133,53
Argabe	895.672,57
Bide-Berri Elkartea	431.784,32
Hezitzaile Espezializatuen Elkartea	651.575,88
Hijas de la Caridad Komunitatea	1.063.799,80
Gipuzkoako Gurutze Gorria	453.165,75
Larratxo Fundazioa	283.804,69
Nuevo Futuro Etxea	614.073,70
Mary Ward Etxea	222.396,82
Ipaze Psikologia Aplikatua	229.882,58
Unión Latina Nra. Sra. Caridad	215.977,42
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.342.625,21</b>

PRESTAZIOAK	ONURADUNAK
KGP ezintasunagatik	1.488
KGP erretiroagatik	1.402
<b>KGP GUZTIRA</b>	<b>2.890</b>
GOF gaixotasunagatik	148
GOF zahartzaroagatik	519
<b>GOF GUZTIRA</b>	<b>667</b>
<b>LISMI GUZTIRA</b>	<b>622</b>
Oinarrizko errenta	3.490
Oinarrizko errentaren osagarria	510
Banakako Laguntza Ekonomikoa	3.596
<b>PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>11.775</b>

### Balorazio ekonomikoak

Adinekoen egoitzak eta eguneko zentroak erabiltzen dituzten pertsonen ekarpen ekonomikoa zehazteko informazioa eta analisiak. Sarrera baldintzak arautzen duten Foru Dekretua indarrean sartu denetik ondorengo balorazioak egin dira:

<b>Egoitzak</b>	600
Erabiltzaile berriak	524
Egoiliarak	76
<b>Eguneko Zentroak</b>	<b>142</b>
Erabiltzaile berriak	142

## Programen zerbitzua

### Ezintasuna

Ohiko bizilekuan jarraitzea ahalbidetzen duten programak.

\_ Laguntza teknikoak: 2002an 946 laguntza tekniko eman dira, horien kostua 820 mila eurotara iristen delarik.

\_ Telealarma: une honetan 2.608 erabiltzaile daude, 392 mila euro baino gehiagoko aurrekontuarekin.

\_ Etxeko laguntza zerbitzua: beren etxeetan jarraitzen duten pertsona menpekoei zuzendua da eta %10 hazi da.

\_ Gerontologia zentro batean aldi baterako edo atseden egonaldiak eskaintzea beren kontura adineko pertsonak dituzten familiei. 615 pertsoneri eman zaie laguntza hori.

\_ Menpeko adinekoentzako eguneko arreta zerbitzua, gaur egun, lanegunetan 655 leku eta asteburuetan 111 leku eskaintzen dituzten ekipamendu berezien bitartez.

\_ Zuzenean lan-mundura sartzerik ez duten ezinduentzako eguneko arreta. 472 leku daude erabilgarri.

\_ *SENDIAN Programa*: programak prestazio ezberdinak, bere artean lotura dutenak, hartzen ditu barruan eta bere helburua pertsonak beren ingurune naturalean mantentzea da. Laguntza hori 718 familiak jasotzen dute.

Etxearen ordezkoko egoitza eskaintzeko programak.

\_ Egoitza arreta: ezintasun edo menpekotasun maila jakin bat duten pertsoneri egoitza, mantenua, zaintza eta arreta jarraitua eskaintzen dieten ekipamenduen bidez.

\_ Adineko pertsonentzako egoitzak: Gipuzkoan, menpekoak diren adineko pertsonentzako etxebizitzaren alternatiba diren egoitza zerbitzuen sarea, gaur egun, lurralde historiko osoan banatutako 62 zentroetako 3.913 lekuk osatzen dute.

\_ Ezintasun psikiko edo fisikoa duten pertsonentzako egoitza arreta: 550 leku daude. Horietatik 532 izaera finkokoak dira eta gainontzeko 18ak aldi baterako izaeraz erabiltzen dituzte atsedenaldi programatan barne hartuta dauden pertsonen.

\_ Txara 2ko egoitza balioaniztunak (54 leku) eta adineko pertsonentzako Donostiako tutoretzapeko etxebizitzak (48 leku) ohiko etxebizitzaren beste alternatibak dira.

## Haur eta gazteak

\_ Haurren babesik gabeko egoera baloratzeko programa: haurren babesik eza diagnostikatzeko ikerketa eta ebaluazio programa. Haurraren garapena kaltetzen duten familia egoerak dauden edo ez zehaztea eta esku-hartze neurri egokienak proposatzea du helburu. Haurrenganako tratatu txarrak zeuden familia egoerei buruzko 375 jakinarazpen jaso dira.

\_ Haurrak ingurune familiarrean mantentzeko programak: adingabeei tratatu txarrak eman dizkieten familiek hobetzeko zenbaterainoko aukerak dituzten baloratzeko da helburua. Hobekuntza hori posible izanez gero, familia bakoitzari egokitutako esku-hartzea egiten da, haurren ongizatea bermatzen duen funtzionamendu ona sustatzeko eta, era berean, haurra bere familietatik banantzea saihestuz edo bere familiara itzultzea bultzatuz.

\_ Familia beraren etxearen ordezkoko aukera bat bilatzeko programak: beren familietatik banandu diren haurrenganako tutoretza gauzatzeko ondoko baliabideak eskaintzen dituzte:

Egoitza harrera adingabeentzako zentroak kudeatzen dituzten erakundeekin, 218 leku eskainiz.

Famili harrera: beste familia batek, hedatua nahiz haurrarena ez dena, hartu dituen haur kopurua 131koa da.

Adopzioa: jatorri gipuzkoarreko haurrak adoptatzeko 3 eskaera aurkeztu dira eta adingabe atzerritarrek adoptatzeko 142. Gehien eskatzen diren herrialdeak Errusia, Txina, Kolonbia, Bulgaria eta Ukraina dira.

*Laguntza Ekonomikoen Programa*: famulien eta haur eta nerabeen ongizatean negatiboki eragiten ari diren beharrei erantzuten die, orokorrean gizarte zerbitzuek eta bestelakoek (hezkuntza, osasuna) eskaintzen dituzten beste ekarpenekin estali ezin direnak. 213 familiei eta desinstituzionalizazio prozesuan dauden 18 urte baino gehiagoko 30 gazteei eskaini zaie zerbitzu hori.